

1380/2024 EBAZPENA, IRAILAREN 17koa, DONOSTIALDEKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI GERENTEARENA. HAREN BIDEZ, ERAKUNDEKO ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENEZ/ZERBITZU EGINKIZUNEZ/ERAKUNDE ARTEKO ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENEZ EKONOMIAKO GOI MAILAKO TEKNIKARI LANPOSTUA BETETZEKO EKAINAREN 27ko 986/2024 DEIALDIA BETE GABE GERATU DA.

Donostialdeko ESlaren Zuzendari Gerentearen ekainaren 27ko 986/2024 Ebazpenaren arabera, erakundeko aldi baterako barne-sustapenez/zerbitzu-eginkizunez/erakunde arteko aldi baterako barne-sustapenez, Ekonomiako Zuzendaritzan (Baliabide Ekonomikoei lotutako Zerbitzuetan) ekonomiako goi-mailako teknikari lanpostu bat hornitzeko deialdia egin zen. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, behar bezala eta epearen barruan bi hautagai agertu ziren. Gainera, hautagaietako batek bere ukoa aurkeztu zuen.

Balorazio Batzordeak erakundeko aldi baterako barne-sustapenez/zerbitzu-eginkizunez/erakunde arteko aldi baterako barne-sustapenez ekonomiako goi-mailako teknikari lanpostu bat betetzeko deialdia bete gabe uztea erabaki zuen; izan ere, jarraitutako prozesuan ondorioztatu denaren arabera, beste hautagaia ez da egokia lanpostua betetzeko beharrezkoak diren merezimendu eta gaitasunari dagokienez.

Horregatik, Zuzendaritza honek deialdia bete gabe uztea erabaki du, honako manuetan xedatutakoarekin bat etorrita: Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. Artikulua; Osakidetza lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua; eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua.

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Hutsik uztea Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuaren Ekonomiako Zuzendaritzan goi-mailako teknikari lanpostua betetzeko deialdia.

BIGARRENA.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendari Nagusiarri, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoarekin bat etorrita.

Donostian, 2024ko irailaren 17an.

ZUZENDARI GERENTEA
Eskuordez: Langileen Zuzendaria
(abenduaren 13ko 2266/2022 ebazpena)

Izp.: María Pilar Sánchez Garduño


DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA
LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS